



IRAGARKIA

Udalbatzak, 2016ko urriaren 14an egindako batzarrean hartutako erabakiarekin bat etorrira, Barrundiako udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren aurrerapena idaztearen gauzatze kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko deialdia egiten da, ondoko datuen arabera:

1.- Erakunde esleitzaila.

a) Erakundea: Barrundiako Udala.

b) Agiriak eta argibideak eskuratzea:

- Bulegoa: Barrundiako Udaleko bulegoak, 09:00etatik 15:00etara.

Iragarkia eta baldintza agiria www.barrundia.eus web orriko kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

- Helbidea: Boilar, 12 – Ozaeta (01206).

- Telefonoa: 945.317.006.

- Telefaxa: 945.317.126.

- Helbide elektronikoa: idazkaria@barrundia.eus.

- Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea: www.barrundia.eus.

- Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte (hamabost egun izango dira iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Azken eguna larunbata edo baliogabea balitz, epea hurrengo egun balioduneko 15:00ak arte luzatuko litzateke).

c) Espedientearen zenbakia: 2016/01

2.- Kontratuaren xedea.

a) Kontratu mota: zerbitzuak.

b) Azalpena: Barrundiako udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren aurrerapena idaztea.

c) Gauzatzeko tokia: Barrundia.

d) Gauzatzeko epea: 3 urte.

3.- Izapidetzea eta prozedura.

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleipen irizpideak:

- Prezioa: 45 puntu.

- Txosten diagnostikoa: 0 - 20 puntu.

- Plan orokorraren aurrerapena idazteko prozesuaren metodologia-proposamena: 0 - 20 puntu.



Ebaluazio irizpideak baldintza agirian zehaztu dira.

4.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 98.750,00 euro gehi BEZa (20.737,50 euro). Guztira: 119.847,50 euro.

5.- Bermeak.- Behin betikoa: esleipenaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

6.- Kontratistaren berariazko betekizunak.

a) Sailkapena: EZ.

b) Ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala.

Administrazio baldintza administratibo berezietako hemezortzigarren klausula.

7.- Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkeztea.

a) Eskaintzak aurkezteko epea: iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo hamabost egunetan. Azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun balioduneko 15:00ak arte luzatuko da epea.

b) Aurkezteko lekua:

- Bulegoa: Ozaetako udaletxean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 15:00etara.

- Helbidea: Boilar, 12 - Ozaeta (01206).

- Postetxean bidalketa egin daiteke. Halako kasuetan, egun horretan bertan, 15:00ak baino lehen, eskaintza igorri egin dela jakinarazi beharko da telexez, faxez, telegramaz edota posta elektronikoz. Nahitaezkoa da baldintza hori betetzea, eskaintza onartua izateko.

Eskaintzak aurkezteko epea bukatu denetik 10 egun igaro badira, ez da onartuko postaz bidalitako eskaintzarik.

c) Lizitatuzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: kontratua egin arte.

d) Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausula agirian adierazitakoak. Horrez gain, agirian jasotako eskaintza ereduaren arabera egingo dira.

8.- Eskaintzak irekitzea:

- Administrazio baldintza administratibo berezietako hogeigarren klausula.

- Helbidea: Boilar, 12 - Ozaeta (01206).

9.- Iragarki gastuak.- Ez dago iragarki gasturik.

Ozaetan, 2016ko urriaren 21a.

Alkatea,

Afro Olabe Martínez de Albéniz

